

## Gaztetxoek badute non gozatu

Bidebietako Kabi Haur Txokoa udalekuak presatzen ari da jada. Lau eta hamalau urte bitarteko gaztetxoak Donostiako zein Euskal Herriko hamaika tokitan berrera ibiliko dira.

Udalekuak ekainaren 24an hasi eta uztailaren 19an bukatuko dira. Lau eta hamaika urte bitarteko gaztetxoak astelehenetik ostiralera bitartean bilduko dira. Non? Haur Txokoa. Noiz? Goizean goiz. Bertatik abiatuko dira eta eguerdira artean Donostialdeko zenbait txoko ezagutzeko aukera izango dute. Eguraldia lagun ez duten egunetan, aldiz, beste zenbait jarduera egingo dituzte Haur Txokoa bertan. Ostiraletan, berriz, egun osoko txangoak egingo dituzte. Bestalde, zortzi eta hamaika urte bitartekoak gau bat etxetik kanpo igaro ahaliko dute, Leitzaranean, hain zuzen ere.



### Irteera Artzentalesera

Urtero legez, hamabi eta hamalau urte bitarteko gaztetxoentzat kanpaldia antolatzen ari dira Kabian. Kanpaldia uztailaren 15etik 21era egingo da, Bizkaiko Artzentales herriko La Estacion izeneko aterpetxean. Besteak beste, inguru horretan dauden kobazuloak eta parke naturalak bisitatuko

dituzte Haur Txokoko lagunek, eta zaldiz ibiltzeko aukera ere izango dute. Aurreko urteetan, besteak beste, Pirinioetan ibili dira Kabiakoak.

Haur Txokoko arduradun Arritxu Zurbanok esan digunez, "urtero antolatutako kanpaldiek harrera bikaina izan dute. 60tik gora haurrek aritu ohi gara eta lau eta

### Auzotarrentzat ez ezik, Donostiako haur guztientzat dira ekimenak

zazpi urte bitartekoentzako taldean jada ez dago tokirik. Hori gutxi balitz bezala, itxaron zerrenda luzea osatzen ari gara". Hurrek edozein tokitan ondo pasatzen dutela azpimarratu digu Arritxuk: "Hondartza, eta batik bat, Santa Klara uhartea gustuko dute gaztetxoek, baina baita Kristina Enea edo Mendiola ere. Donostiatik kanpo, berriz, inguru basatiak gustatzen zaizkie gehien".

Kabiako udalekuan parte hartzen duten haur gehienak auzotarrak dire arren, egitasmoak Donostiako haur guztiei zuzenduta daude. Izena emateko edota informazio gehiago jaso ahal izateko 943-390007 telefono zenbakira hots egin daiteke.

**Ikatz kalea 8**

**EGUNEZ ETA GAUEZ GIRORIK ONENA**

**FERMIN KALBETON 27**

San Jeronimo 25

**Parte Zaharreko martzarik onena**

**Fermin Kalbeton 26**

**Gozatzeko  
musikarik  
onena**



**ALTERRI**

Erregina Erregenta, 2 • DONOSTIA